

JERARDO ELORTZAREN OMENALDIRAKO 03

Pruden Gartzia

Oñati, 2018ko ekainaren 9an

- Egun on guztioi, eta bereziki gaur omentzen dugun Jerardo Elortzari.
- Nire ekarpena izango da Odisearen zati bat irakurtzea,
 - hau da, orain dela 3000 urte Homerok konposatutako poema luze baten zati txiki bat.
 - Zati horretan, greziarrak, tartean Ulises, bazkari handi bat ospatzen ari dira, eta orduko ohiturari segituz, bazkariaren amaieran aedo edo bertsolari bat zutitzen da eta kantuan hasten da.
 - Eta zer gertatzen da bertsolaria kantuan ari den bitartean?

“Hauxe zan aedo argiak kantaitten ebena. Ulisesek, bere esku giarrez purpura kolorezko soingañeko zabala harturik, burugañez bota eben, bere betarte zoragarria estalduaz, lotsa zan ba feazitarren aurrean begiak malkoz bustita, negar-jario agerketan; bertsolari jainkotiak, barriz, kantaittia bukatu ebenean, negar-malkoak sikatu, mantua burutik kendu ta, katillu bikoitz bat harturik, ixurketak egin otsan jainkotasunai. Baiña a barriz be kantari hasi zanean – feaziar prestuak eskatu otsailako kantaitteko, haren esanak ederrak zirala-ta – , Ulisesek barriro be bere burua estali ta negarrari emun otsan. Alkinoo ezik, beste iñor etzan konturatu Ulisesen negarrez; erregea, barriz, bai, ondoan eukan-eta, konturatu zan, eta ondo konturatu, baita zein intziri barrenkoiak emuten zituan adittu be. Erregeak, ba, orduan feazitar arraun-zale bizkorrai, honela:

Alkinoo.-- Entzun, arren, feaziar gudalburu ta erregegaiok! Alkarrekiko jan-edanaz ta kantuz, hau baita oturuntza bikaiñen laguntzalle, alai egon garien ezker, goazen orain guztitarako jokuetara; arrotzak, bere aberrira itzultzerakoan, adierazo dagixen bere lagunai, zenbat mailla gauzen beste gizakumeak baiño gorago, ukabilka, auzka, salto luzetan ta antxintxiketan.”

(Homero, *Odisea*, aita Santi Onaindiaren itzulpena egokituta, Euskerazaintza, 1985, 104. or.)

- Denok ondo baino hobeto dakizuen bezala, guretzako, gu guztiontzako, Oñati ez da bakarrik gure jaioterria, baita ere gure Itaka da, urrin egon arren gure ametsetan ere agertzen den herria, Ulisesi ere ametsetan Itaka agertzen zitzaion bezala.
 - Eta Ulisesi Itaka, eta guri Oñati.
- Eta zu, Jerardo, nor zara zu orduan?
 - **Zu zara gure Homero, Oñatiren historia konposatzen duen idazle jakintsua, erdi historialaria, erdi poeta.**
 - **Homerok Itaka, eta Jerardok, Oñati.**
 - Mila esker, Jerardo.